

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 4a / 587. zenbakia



TXAPELDUNAK!

Erroizeneak eta Argotek eraman zuten Bergara Hiria, nagusietan

ASTEKO: LITERATURA LEHIAKETAKO SARITUAK/6 • ANTZERKIA: HIKAREN 'IXA' GAUR NOVEDADESEN/8

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: AINTZANE IRIZAR

SARRERA DOAN

Aste bukaerako
plana zabal-zabalik

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!




Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster



Ikustekoa!

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili





San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



ATREBENTZIAEZPADA/ Asko erabiltzen duzu poltsikoko telefonoa? Beharrezkoa iruditzen zaizu?



MIREIA ODRIOZOLA
21 urte

Telefonoz deitzeko bakarrik erabiltzen dut. Mezu gutxi batzuk bakarrik bidaltzen ditut; ez dut beste ezer tarako erabiltzen. Hala ere, gainean eramaten dut beti telefonoa.



JUAN ESNAOLA
60 urte

Badaukat poltsikoko telefonoa, baina ez dut askorik erabiltzen. Lanerako bakarrik erabiltzen dut, eta besteek nondik nora nabilen jakiteko; nik ez dut deirik egiten.



BEGOÑA MUJIKA
48 urte

Nik ez daukat poltsikoko telefonorik eta besteena ere ez dut sekula erabili. Niretako, behintzat, ez da beharrezkoa, eta jendeak modagatik erabiltzen duela uste dut.




PATXI URIBESALGO
53 urte

Lanean erabiltzen dut, baina bestela nik ez daukat poltsikoko telefonorik. Lan orduetatik kanpo ez dut erabiltzen. Presazko egoerarako ona da, baina bestela menpekotasuna sortzen du.



OLATZ IGLESIAS
32 urte

Asko erabiltzen dut poltsikoko telefonoa; hori gabe ezin naiz etxetik irten. Beharrezkoa ez da, baina guk sortzen dugu behar hori eta azkenean beharrezko bihurtzen dugu.



AITOR DIAZ DE ESPADA
30 urte

Erabiltzen dut, gehienbat deiak egiteko eta mezuak bidaltzeko. Ez da beharrezkoa, baina gauza batzuetarako ondo dago; autoarekin bide bazterrean geldituz gero, adibidez.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK APARKALEKUAK Gazte batek esan digu zezen-plaza goizegi ez ote duten ipini Ibargarain. Izan ere, "aparkaleku asko kentzen dituzte, eta jaietan autoa non utzi asmatzen nahikoa lan izaten bada, aurrez ere tokia kentzen badigute, non laga behar dugu autoa?", esan digu. Baina arazoa ez omen ez du zezen-plazak soilik sortzen: txoshen guneak ere aparkaleku asko kentzen du. //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO / 6

Aholku Batzordea

Euskararen Aholku Batzordea izendatu zuten joan den asteleheneko osoko bilkuran.

KULTURA / 8

Juanjo Altuna, saritua

Juanjo Altuna margolariak lehen saria jaso du Tuteran Hiria margo lehiaketan.

KIROLA / 10

Gorlako auto igoera

Gorlako XIV. Auto Igoera jokatu da bihar, zapatua. 62 partaide izango dira irteeran.

ASTEKODATUA

62

AUTO GIDARI IZANGO DIRA GORLAKO IGOERAN

Zapatuan egingo dute Gorlako Igoeraren XIV. ekitaldia, eta 62 partaide izango dira aurtengoan. Faborito nagusia Aitor Zabaleta bergararra izango da, Lola Diamante autoarekin.

BESTEKEESANA


“Eusko Ikaskuntza berrezarri zenetik 25 urte iragan direlarik, gure proiektua berriro

pentsatu beharra dugu, XXI. mendean ere erreferentzia kultural eta zientifikoa izaten jarraitu nahi izanez gero”
JAVIER RETEGI / Eusko Ikaskuntzako presidentea
Asmoz Ta Jakitez/04-maiatza

“Kontratua berritzean jabetu nintzen Realean nire aroa amaitu zela eta taldea utzi nahi

nuela. (...) Jokatzen segitu nahi dut; erabaki oso garrantzitsua da, Realean bezain ondo egon nahi baitut beste taldean ere”
AGUSTIN ARANZABAL / Realeko jokalaria
Berria/04-maiatza

BERAIEKDIÑOÈ/ Unai Lopez



“Euzko lurganean zutunik”

Herri-minak jota edo, penaz jaso genuen Eskozia aldean gure euskaldun zahararen heriotzaren berri, Gernikako arbola: Mendeetan euskal nortasun eta askatasunen adierazgarri, gizaldiz gizaldi adoratu eta begiruneen erakargarri, herri baten ikur, gizarte baten ezpal, nazio baten eskubideen irudi, sendo bezain zurrun. Bizi legez, oinordekoak hartuko du haren lekua, zuztar berriak, ohiko izaera, garai berria.

Politika arloan ere aro berri baten aurrean omen gaudela diote hangoek eta hemengoek Madrileko botere aldaketa medio, hori da behintzat maiz hedabideetan irakur edo entzun daitekeena: Makina bat lapiko omen dago sutan galdan ohikoa bihurtu den “sukalde-lanean” esaeraren ildotik. Hitzek ekintzei lekua utzi diezaietela, herri honen ilusio eta nahiak ez daitezela beste behin zapuztu, aski da.

Landatzearen dagoen kimu gazte hori itxaropenez jantzitako aro berri honen adierazgarri izan dadila, gure nortasuna gordez, haize berrien elkargunearen islapen. Ardura asko beharko du gaztaroan, egunero zainketak: Horrela bakarrik lortuko dugu-eta bere gure zuztarrak Europaraino sartuz, haren hostoen itzal zuri-gorri-orlegian zazpiak bat ikustea.

“Landatzearen kimu gazte hori aro berriaren adierazgarri izan dadila”

Zalantza gabe denoi dagokigu lorezain izatea, bakoitzak bere ekarpenekin helburu bakarra bultzatuz, euskal askatasunen gure ikurra babestu eta indartzea. Bidean “ondorik” ez dela faltako seguru, hurrengo hauteskundeetako egoera lekuko, baina lorezainari dagokio osasun hori babestea, guri, horkooi. Hona hemen Iparragirrek abesti famatuan sakratutako Gernikako arbolak luzaroan loratzeko bidea, baita arbolak irudikatzen duen beste horrentzat ere... Inork ez dezala espero kanpotik ongarririk berezirik jasoko denik.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegia,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberebizar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 4**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 5**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- DOMEKA, 6**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 7**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 8**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 9**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUENA, 10**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Anglozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Domekak:
10:30, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Domekak: 12:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOEN AFARIA

1942an jaiotako en afaria ekainaren 12an Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik meza izango da Santa Marinan, 19:00etan. Izenematea Mizpildi okindegian, Edel tapiz dendan edo Azpeitxi jatetxean, hilaren 8ra arte.

1966AN JAIOTAKOEN AFARIA

1966an jaiotako en afaria ekainaren 19an Sirimiri jatetxean. Izenematea (10 euro) Ariznoa tabernan.

1960AN JAIOTAKOEN AFARIA

1960an jaiotako en afaria ekainaren 19an Azpeitxi jatetxean. Izenematea (15 euro) Kutzaren 2101 0070 8201 2453 8943 kontuan.

ODOL ATERATZEA

Hurrengo odol ateratzea eguaztenean, ekainaren 9an, izango da, Seminarioan, 18:30ean hasita.

MUSIKA ESKOLA

Ikasleen kontzertuak izango dira hurrengo astean Musika Eskolan. Astelehenean metal kontzertua izango da 19:00etan, martitzenean biola eta biolontxelo emanaldia 18:30ean, eguaztenean biolina 19:30ean, eguenean gitarra eta txistua 18:30ean, eguenean fagot, oboe eta perkusio kontzertua 19:00etan. Zabalotegin ere emanaldiak izango dira martitzenean (klarinetea eta flauta) eta eguenean (pianoa), 19:00etan.

JARDUNEN AGENDA

KANTU LIBURUXKAK

Jardunek euskal kantuen liburuxkak jarri ditu salgai. Liburuxkak Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan eskura daitezke, 2 euroren truke.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorluzue aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN


Musika Eskolak hiru moja omendu zituen

Bergarako Musika Eskolak Mariaren Lagundiko Maria Amparo Navarro, Maria Jesus Rekalde eta Maria Begoña Rekalde omendu zituen 1994ko maiatzaren 29an. Herriko musikaren alde egindako lana aitortu nahi izan zion Musika Eskolak omen-dutakoei.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Korotz"



Ardi, koneju eta abarren kaka.
—Ardi korotzez beteta zeuen bidia.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 28	7 °C
MAXIMOA Zapatua, 29	27 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,8 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 26	26 °C 13 °C - l/m ²
Eguena, 27	25 °C 10 °C - l/m ²
Egubakoitza, 28	27 °C 7 °C - l/m ²
Zapatua, 29	27 °C 11 °C 0,8 l/m ²
Domeka, 30	16 °C 15 °C - l/m ²
Astelehena, 31	24 °C 10 °C - l/m ²
Martitzena, 1	24 °C 14 °C - l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOA

ZERAMIKA LANAK KULTURA ETXEAN

Simon Arrieta zeramika taldeko lanak ikusgai daude kultura etxeko erakusketa aretoan. Taldeko hamabi egile-ren lanak daude ikusgai. Herriko zera-mika egileek azkenaldian egindako pie-zak erakutsi nahi izan dituzte jendaurrean. Erakusketa domekara arte izango da zabalik Errotalde jau-regian, egubakoitzean 18:00etatik 21:00etara eta zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com



Udaletxean ordezkariak aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuen Bergara Aurrerak maiatzaren 25ean.

LEIRE KORTABARRIA

EUSKARA/ Euskararen Aholku Batzordea izendatu zuen udalbatzak maiatzaren 24an

BAREN MOZIOA HURRENGO OSOKO BILKURA BATEN AZTERTUKO DUTE

EDU MENDIBIL

Victoriano Gallastegi alkateak Bergara Aurrera plataformak aurkeztutako mozioa beste osoko bilkura baterako atzeratzea erabaki zuen joan den astean. Bestalde, euskararen normalizazioan jardungo duen Euskararen Aholku Batzordea izendatu zuen Udalbatzak.

Joan den asteleheneko udalbatza ez zen Bergara Aurrera taldeak aurkeztutako mozioa botatu. Victoriano Gallastegi alkateak Baren testua bere alderdian kontsultatu beharra zuela eta mozioa beste osoko bilkura baterako atzeratzen zela adierazi zuen plenoan. Iñigo Iñurrategi Aralarreko zinegotziak gaia premiazkoa zela eta lehen bai lehen mozioa osoko bilkurara ekartzeari eskatu zion alkateari. Besteak beste, Bergara Aurrera plataformakoek zera eskatzen diote udalari: beste edozein alderdi

politiko bezala, eragile eta mintzakide politiko izatea, eta ia zoko udal hauteskundetan BAK lortutako emaitzak errespetatu eta onartzeko konpromisoa hartzea. Udalak oraindik ez du erabaki noiz aztertuko den Baren mozioa.

EUSKARAREN AHOJKU BATZORDEA
Bestalde, Euskararen Aholku Batzordea ofizialki izendatzeko proposamena onartu zuen Udalbatzak. Gogoratuko duzue, Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen joan den urteko maiatzean. Aipatutako Planaren helburu nagusia

zera da: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikarako neurriak erabakitzea, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen berreskurapen osoa lortu asmoz, euskararen aldeko urratsak areagotzeko.

Planaren garapenerako organoen artean Udaleko eta gizarteko esparru garrantzitsuenetako ordezkari osatutako Euskararen Aholku Batzordea sortzea jasotzen da. Politikagintzan, hezkuntzan, euskalgintzan, erlijioan, merkataritzan, kirolan edota komunikabideetan diharduten herriko 17 lagunek osatuko dute batzordea. Besteak beste, udalerriko plan estrategikoa zehazteko aholkuak ematea, urteko kudeaketa-planen jarraipena egitea edo euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerkusirik duten gaia aztertzea izango dira beraien zereginetako batzuk.

Baren testua bere alderdian kontsultatu beharra zuela esan zuen Gallastegi alkateak


Jerardo Elortzaren hitzaldia martitzenean, Miguel Altunan

E.M.

Bergara, historia topagunia hitzaldi sortaren barruan, Jerardo Elortzak Lazarraga, Hegoaldeko lehen euskal idazle ezaguna izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, ekainaren 8an, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Aurkitu berri den Juan Perez Lazarragakoaren XVI. mendeko eskuizkribuak euskal kulturaren bazterra harrotu ditu. Liburuaren zertzeladarik nagu-

sienak eta egilearen ibilbidea izango ditu aztergai Elortzak. Lazarraga familiaren jatorriaren gainean mintzatuko da, hasi Oñatiko sortetxetik Araban zehar zabaldu zituen adarretaraino.

Jerardo Elortzak Filologia Alemana ikasi zuen, Deustuko Unibertsitatean eta Alemanian, Münsteren. Hainbat urtetan UNEDeko Euskal Kultur Departamentuan jardun ondoren, egun MUko Enpresa Zientzien Fakultatean dihardu, Oñatin.



ARTXIBOA

Jerardo Elortzak Mondragon Unibertsitatean dihardu, Enpresa Zientzien Fakultatean.

LABUR

Juan Sanchez Vallejoren hitzaldia martitzenean, Agifes elkartearen eskutik

Agifes elkarteak antolatuta, Juan Sanchez Vallejo mediku psikiatrak buruko gaixotasunen gainean dauden aurre-irritziak aztertuko ditu martitzenean, ekainaren 8an, kultura etxean, 19:00etan. Juan Sanchez Vallejo *La vida mala* iburuaren egilea dugu.

Erretiratuen bi eguneko irteera egingo dute Kantabriara, ekainaren 23an eta 24an

San Joxepe erretiratuen elkarteak ekainaren 23an eta 24an Kantabriara joateko irteera antolatu du. Besteak beste, Santander, Santillana del Mar eta Altamirako kobak bisitatuko dituzte. Izene-matea ekainaren 5era arte zabalik dago.


Uda ondoren, mediku kontsulta bat arratsaldean eskainiko da anbulatorioan

Bergarako Osasun Zentroan, uda ondoren, mediku kontsulta bat arratsaldeko ordutegira pasako da, 13:00etatik 20:00etara hain zuzen. Ordutegi honetan zerbitzua jasotzeko interesa dutenek ekainaren 30a baino lehen 943 03 54 00 telefonora dei dezakete.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin


Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A



Gaztetxoek badute irakurtzeko eta idazteko zaletasuna.

KULTURA/ Hainbat sailetan 382 lan jaso dituzte aurten

Literatura lehiaketako sari banaketa bihar Zabalotegin

E.M.

Koldo Eleizalde literatura lehiaketako sari banaketa egingo da bihar, zapatua, Zabalotegiko aretoan, 12:00etan. Aurten 382 lan jaso dituzte.

Jasotako ipuinak 347 izan dira. 1996-97 bitartekoetan Asier Sanpietro, Beñat Renner eta Olatz Alberdi izan dira sarituak; 1994-95 bitartekoetan, Jone Eguren, Ainhoa Etxeberria eta Andoni Dukun; 1992-93an jaiotakoan artean Ane Barragan, Amaia Santamaria eta Amaia Begiristain;

1989-91 bitartekoetan Pedro Estevez, Andoni Garcia eta Aitziber Izagirre eta, azkenik, 1988an edo aurretik jaiotakoan artean Oier Bolibarrek eskuratu du lehen saria, Maddi Inarrak bigarrena eta hirugarrena Amaia Amasorainendako izan da.

Komikietan, berriz, Asier Lazpiur eta Josu Irizar gaztetxoek jaso dute lehen saria eta Ander Barruso eta Ekaitz Regorigok bigarrena. Bertsotan, 1992-93 bitartekoetan, Maitane Arteagak, Mireia Larrañagak eta Marina Iturriagak irabazi dute eta bigarren saria Elene Etxenizendako izan da. 1989-91 bitartekoetan Ira-

ti Alberdik eskuratu du lehen saria eta 1988an edo aurretik jaiotakoan artean Julen Alberdik akzesita jaso du.

Ipuin kontaketa/antzerkia sailean, Aranzadi eta San Martin ikastetxeetako taldeak bereizi dituzte, *Aladar eta Eneeva* eta *Beltzuntzeko oihana* lanengatik, hurrenez hurren. 1992-97an jaiotakoetan ere bi taldek jasoko dute saria, Mariaren Lagundikoe *Rich familiaren irteera* lanengatik eta San Martinekoe *Azterketak* izenburuko ipuin/antzerkiagatik. Epaimahaiak esandakoaren arabera, lanen kalitatea ona izan da orokorrean.

Alcer Gipuzkoak emailearen eguna ospatuko du zapatuan

E.M.

Alcer Gipuzkoa elkarteak organo emailearen eguna ospatuko du bihar, zapatua. Bergaran, organo emaile bihurtzeko argibideak eskainiko dira Irala kalean, goiz osoan zehar.

Alcer Gipuzkoa elkarteak dihardu organo emaileak lortzeko lanean, beti ere transplante baten zain dauden pertsona askoren beharrak asetzeko asmorekin. Eguaztenean, ekainaren 2an, Organo Emailearen Eguna ospatu zen eta bihar, zapatua, emaileak lortzeko kanpainarekin aurrera egingo du Alcerrek. Gipuzkoako 30 bat herritan mahai informatiboak jarriko dituzte. Bergaran, esan bezala, Irala kalean izango dira, Peñalba dendaren ondoan, goiz osoan zehar. Besteak beste, emaile egiteko jarraitu beharreko pausuak eta bestelako argibideak eskainiko dituzte

Alcerreko kideek.

Bergarako organo emaileen kopuruari dagokionez, 1984an, esate baterako, 28 organo emaile ziren gure herrian. Azken urteotan emaileen kopuruak gorabeherak izan ditu: 1994an 37 lagun, 95ean 64, 96an 70, 97an 65, 98an 36, 99an 65 emaile ziren, 2000. urtean 31, 2001ean 15, 2002an 42, 2003an 32 eta 2004an, oraingoz, 32 emaile lortu dituzte.

SOLIDARITATE KATEA

Alcerrekoek azpimarratzen dutenez, "emaitzarik gabe ez dago transplanterik. Euskal Autonomi Elkartearen emaitzek eta transplanteek punta puntako maila lortu dute, bai kopuruz eta bai kalitatez. Hala ere, emaitza eta transplanteen etengabeko beharrak hor jarraitzen du eta solidaritate katea behar beharrezkoa da. Errealitate hau gorantz mantentzeko beharrezkoa izango da jendearen parte hartzea eta mentalizazioa".

LABUR

Udaberriko kontzertuko bazkarirako txartelak salgai daude Musika Eskolan

Musika Eskolaren Udaberriko kontzertua izango da ekainaren 13an Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Ondoren Espoloian egingo den bazkarirako txartelak Musika Eskolan salgai daude, 13 eurotan nagusiendako eta 3 eurotan gaztetxoendako.

Kontzerturako sarrerak, berriz, 3 euroren truke eskura daitezke Musika Eskolan bertan.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea, ekainaren 30era arte

Bergarako Udalak jakitera eman duenez, Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea ekainaren 30era arte izango da zabalik. Edozein argibidetarako kontu hartzailearen bulegora jo dezakezue, 943 77 91 64 telefono zenbakira.

Behin epea amaitu ondoren, errekaruarekin egin beharko da ordainketa.

Bitorianatxo datorren urtera arte agurtu da

ERREDAKZIOA

Bitorianatxo datorren urtera arte agurtu genuen martitzen gauean. Joan dira aurtengo Pazkoak, eta jasotakoaren arabera, iaz baino jende gutxiago ibili da jaietan. Hori da, hain zuzen ere, tabernariaren, barraketako langileen eta Udaltzaingoaren inpresioa. Martitzeneko herri bazkarian ere ohi baino jende gutxiago elkartu da aurten: 80 lagun inguru. Beste urte batzuetako jai giroa faltan igarri zen arratsalde partean. Hala ere, adin guztietako bergarrek izan dute jaietan murgiltzeko aukera.

HAINBAT KALTE

Bestalde, Udaltzaingotik adierazitakoaren arabera, hainbat kalte eragin dituzte ezezagunek jaietan zehar. Matxiategi aldean eta Oxirondo plazaren inguruan edukiontziak irauli, arbolatxoak apurtu, faroletako kristalak apurtu eta bestelako kalteak eragin dituzte. Udaltzaingoak eragindako kalteak zenbatzeke zituen eguaztenean. Bestelako aparteko gertakaririk ez dela gertatu esan digute Udaltzaingoko iturriek. Baina Bideberriko txosna inguruan musika ez kentzeagatik hainbat kexa jaso dituzte udaltxean.



Ohi baino jende gutxiago elkartu da aurten herri bazkarian, martitzenean.

USOA AGIRRE



YOGA IRAKASLEEI AGUR AFARIA

Antonia Nogueiras eta Jose Luis Armendia yoga irakasleei agur afaria eskaini zieten beraien ikasleek joan den maiatzaren 21ean. Bien artean 180 ikasle inguru izan dituzte Udalak antolatutako yoga ikastaroetan. Hurrengo ikasturtean ez dute jarraituko, eta hori dela eta, agurra egin zieten bie. Afarian 50 lagun elkartu ziren, Torrekua jatetxean. Ederto eta giro ezin hobean afaldu ondoren, ikasleek opari bana eman zieten Antoniari eta Jose Luisi, oroigarri modura. Jose Luisek 9 urte egin ditu Udaleko ikastaroetan, eta hurrengo ikasturtean erretiratuen taldearekin jarraituko du Bergaran. Bien bitartean, ondo segi, guztiok!



KULTUR ASTEAN, IKASLEENDAKO EKITALDIAK MARIAREN LAGUNDIAN

Pazkoen aurretik Kultur Astea izan zuten Mariaren Lagundia ikastetxean. Haur Hezkuntzako ikasleek, Lehen Hezkuntzako lehenbiziko hiru zikloetako ikasleek eta DBHkoek ere hainbat ekitalditan hartu zuten parte. Besteak beste, askotariko ikastaroak, hitzaldiak, bideo emanaldiak eta jolasak izan zituzten lau egunean. Eguraldia lagun, danborra jotzeko aukera izan zuten, ikastetxeko patioan. Orain, ikasturtearen amaiera esprintean, liburuetara itzuli behar...



PILOTA SAILAREN ZOZKETA

Bergara KEko pilota sailaren zozketan, Josu Zabaletak eskuratu du lehen saria: buruz buruko finalerako lau sarrera eta 500 euro. 7.012 izan zen saritutako zenbakia. Bigarren saria (112 zenbakia), berriz, Jose Mari Larrañagarendako izan da: 200 euro eta lau lagunendako afaria Erreki jatetxean. Argazkian, saritutako Reyes Azkoitia pilota saileko entrenatzailearekin eta Erreki jatetxeko Aurrekin. Zorionak, saritutakoei!!

BERGARA KIROL ELKARTEAREN ZOZKETA

Bergara Kirol Elkarteak apirilean egindako zozketan 13 zenbakia izan zen saritua. Jabier Zabaleta genuen txartelaren jabea, eta berak eskuratu zuen saria, Candy etxeko etxeresna elektriko bat eta lau lagunendako afaria Erreki jatetxean. Argazkian, Jabier Zabaleta saria jasotzen, Iñaki San Jose Bergara Kirol Elkarteko presidentearen eskutik. Denboraldiko azken zozketako txartelak salgai daude, euro baten truke. Etxeresna elektrikoa eta Zumelaga jatetxean lau lagunendako afaria zozketatuko dituzte.



ANTZERKIA/Hika Teatroaren azken lana Bergaran ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza, Novedadesen, 22:30ean

Mikel Laskurain bergararra, Hikaren 'Ixa' antzezlaneko protagonista nagusia

EDU MENDIBIL

Hika antzerki taldeak *Ixa* antzezlan eskainiko du gaur, egubakoitza, Novedades aretoan, 22:30ean. Mikel Laskurain aktore bergararra dugu antzezlaneko aktore bakarra. Kontraesanez betetiko Ixaren papera egiten du Laskurainek.

Ixa da Hika antzerki taldearen azken lana. Hika Teatrea 1990ean sortu zen, eta ordutik hona askotariko antzerki motak landu izan ditu taldeak. Besteak beste, kale antzerkia, helduendako antzerkia, musikala eta kafe teatroa jorratu izan ditu Hika Teatreak. Bere lanen artean, *Eta ohea egin gabe*, *Chaplin tropela*, *Aguro*, *Henry Bengoa inventarium*, *Arrautza delikatuak*, *Euskal off 2050* eta *Ai, ama!* nabarmen daitezke. *Euskal off 2050* lanarengatik Ikusleen Saria eskuratu zuten Azpeitiko Antzerki Topaketetan, 1999an. Arantxa Iturberen testuan oinarritutako *Ai, ama!* lanarekin ere hainbat sari jaso zituzten.

KOMEDIA

Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurraga taldeko zuzendaria dira azken lan horretako egileak. Oraingoan komedia generoa aukeratu dute Hikakoek. Eta adin guztietako ikusleei zuzendutako lana da. Hain zuzen ere, Mikel Laskurain aktore bergararrak egiten du *Manuel Tejero* edo *Ixa*-ren papera. Agindu diotelako joan da

'Ixa'-k modernotzat dauka bere burua, pentsatzeko modua nahiko atzerakoia duen arren

Hikaren azken lana Arantxa Iturbek eta Agurtzane Intxaurragak idatzitakoa da

Ixa antzokira, eta han konturatuko da antzerkiko jendea ez dagoela gertu agindutako lana ordaintzeko. Horrek erabat sutuko du *Ixa*, eszenatokira igo eta bere historia kontatzeraino. Eta izango du zer kontatu *Ixa*-k. La Nabaleko langile izan zenetik gaur egungo gizartean hain garrantzitsua den lanbide berezi bat edukitzeraino pasa dituenak, hain zuzen ere. Baina ez dakigu zein den *Ixa*-ren helbidea, oso zuhurra da-eta. Bere langile eskubideak defendatzeko erabaki gogor bat hartuko du, antzokira joaten direnek bakarrik jakingo dutena...

KONTRAESANAK DITUEN PERTSONAIA


Egileen hitzetan, "egungo ikuskizuna egin nahi izan dugu, gizar-

teko zikinkeria eta kontraesan ugari biltzen dituena. *Ixa* ez da alproja, ez da alferra, egungo bizitza indibidualistara egokitzen jakin izan duen gizona baizik. Eta modernotzat dauka bere burua, bere pentsatzeko modua arlo askotan atzerakoia izan arren. Aspaldiko garaietako rockeroen antzera, larruzko jaka, egunetako bizarra eta ile luzea daramatza. Eta atsegin ditu garga-gardoa, futbola eta sexua".

MIKEL LASKURAIN, ANTZEZLE BAKARRA

Esan bezala, Mikel Laskurain dugu antzezlaneko aktore bakarra. *Ixa* Donostiako Jareño zentroan estreinatu zuten joan den urteko azaroan. Mikel Laskurainek antzeztan duen pertsonaiaren gainean zera dio: "Figurante politiko-folkloriko-kultural hori nire izaeratik oso urruti badago ere, horrelako pertsonaiak egon badaude gaurko gizartean". Bera aktore bakarra izanda, ikusleekiko harremana zuzenagoa da oraindik: "Horrek ez dit beldur handirik ematen, orain arte egindako zenbait ikuskizunetan harreman zuzena izan dudalako ikusleekin". Komedia gordin horrek pasarte gazi-gozoak erakusten ditu. Heavy erritmoetan oinarritutako musikak berebiziko garrantzia dauka Hikaren azken antzezlanean.

Emanaldirako sarrerak 8 eurotan salgai jarriko dira, Novedadesen. 26 urtetik beherakoendako eta langabeendako, 6 eurotan eta 17 urtetik beherako gazteendako, 2 eurotan.



Hikak joan den azaroan aurkeztu zuen *Ixa* Donostian.

Juanjo Altuna margolariak Tuterara Hiria lehiaketa irabazi du

E.M.

Espacios en construccion lanari esker, Juanjo Altuna margolariak Tuterara Hiria lehiaketa irabazi du. Lehiaketara 86 lan aurkeztu ziren. Altunak 12.000 euroko saria jasoko du.


Esan bezala, 86 lan aurkeztu ziren Tuterara Hiria margo lehiaketaren 12. ekitaldira. Besteak beste, Portugal, Peru, Paraguay eta Espainiako Estatuko margolariak izan ziren lehian. Juan Genoves, Enrique Brinkmann, Pedro Torres Gonzalez, Jose Esteve Adam eta Modesto Cuixartek osatutako epaimahaiak maiatzaren 21ean eman zuten erabakiaren berri. Epaimahaiaren arabera, "Altunak asko arriskatu du bere lanean, eta horixe da hain zuzen eska-

tzen zaiona: bide berriak zabaltea. Gama monokordea baina erritmo bizia duen lana da saritutakoa".

BOLADA ONEAN

Juanjo Altunak 12.000 euroko saria jasoko du. Bigarren saria (6.000 eurokoa) Carlos Corres errioxarentzat izan da, Matushka lanagatik. Lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa ekainaren 25era arte izango dira ikusgai, Tuterako Castel-Ruiz kultura etxean.

Altuna bolada onean dago azkenaldian. Hain zuzen ere, Tuterako saria gain, Bizkaiko UNEDen margo lehiaketan saria nagusia jaso berri du eta, era berean, Ibercajak eta Diario de La Rioja estatuko mailan deitutako lehiaketan bigarren saria eman diote.



Juanjo Altuna.

LABUR

Elena Etxaniz gaztetxoa, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan saritua

Gipuzkoako Eskolarteko 24. Bertsolari Txapelketan, bertso pape-retan, Elena Etxaniz Aranzadi Ikastolako ikasleak aipamena jaso du LHko 3. Zikloko ikasleen artean. Sari banaketa egubakoitzean egin zuten, Zarauzko Arizbatalde kiroldegian.

'Azur'-ek herriko hainbat txokoren argazkiak ikusgai jarri ditu Artekalea pizzerian

Azur-en argazki erakusketa ikusgai dago egunotan Bergarako Artekalea pizzerian. Bergarako hainbat txokoren argazkiak zintzilikatu ditu, bere ikuspegi pertsonalarekin.

Hamahiru lanek osatzen dute erakusketa eta ekainaren bukerara arte izango da ikusgai.

Maite Toledok Arrasateko Emakume Txokoak antolatutako argazki lehiaketa irabazi du

Maite Toledoren *Son melodia* izenburuko argazkiak lehen saria jaso du Arrasateko Emakume Txokoak antolatutako Emakumea eta Lana Lehiaketan. Kuban atera zuen saritutako argazkia, hango musika talde batek La Habanako kafetegian batean eginiko kantaldi batean hain zuzen ere. Maite Toledok 300 euroko saria jaso du.

Erroizenean eta Argote Bergara Hiria txapelketako irabazle


AINTZANE IRIZAR

Astelehenean jokatu zituzten Bergara Hiria txapelketako finalak. 22 urtez azpikoan mailan, Etxeberriak eta Izak jantzi zuten txapela. Nagusien mailan, berriz, Erroizeneak eta Argotek 14-22 irabazi zieten Huiziri eta Gutierrezen.

Partidu luzeak, gogorak eta ikusgarriak izan ziren astelehen iluntzekoak. Sekula baino jende gehiago egon zen, eta giro polita sortu zen pilotalekuan.

22 urtez azpikoan mailako finala jokatu zuten lehendabizi. Olazabalek eta Beteluk Etxeberria eta Iza izan zituzten aurrez aurre. Partidu polita izan zen, benetan. Aipatzekoa da Izak egin zuen lana; erakustaldi bikaina egin zuen zornotzar gazte horrek. Harrituta laga zituen zaleak, bere ezkerreko eskua-ekin, bereziki. Dena dela, lau pilotariak erakutsi zuten maila bikaina. Partiduaren amaieran, 17-22, Etxeberriaren eta Izaren alde.

Nagusien mailan, berriz, Huizik eta Gutierrezek Erroizenearen eta Argoteraren aurka jokatu zuten finala. Partidu



Huizik eta Gutierrezek, bigarren geratu ziren arren, partidu bikaina egin zuten.

benetan gogorra eta luzea izan zen. 80 pilotakadatik gorako tanto bat baino gehiago jokatu zuten. Partidu bikaina bigarren hura ere. Oso partidu orekatua izan zen, pare-parean ibili ziren bi bikoteak. 14na jarri zirenetik aurrera, baina, Huiziri eta Gutierrezen nekeak ez ziren laga aurrera egiten, eta hantxe hautsi zen partidua. Azkenean, 14-22 galdu zuten Huizi usur-

bildarrak eta Igor Gutierrezek bergararrak. Dena dela, oso maila ona erakutsi zuen Igorrek herri-tarren aurrean.

Antolatzaileak oso pozik azaldu dira aurtengo txapelketaren mailarekin, baita herri-tarrek emandako erantzunarekin ere. Aurten jarri dituzte lehenengo aldiz finalak Pazko jaietako astelehenean, eta esan bezala, jende asko egon zen.

Euskadiko gimnasia erritmiko txapelketan bikain bergararrak

AINTZANE IRIZAR

Aurreko asteko zapatuan jokatu zuten Euskadiko gimnasia erritmikoko txapelketa Durangon. Ariznoa taldeko neskek lan bikaina egin zuten, eta urrezko eta zilarrezko dominak ekarri zituzten etxera.

Alebin eta infantil mailako Euskadiko Txapelketan oso emaitza onak lortu zituzten bergararrak. Alebin A mailan, urrezko domina irabazi zuten, taldeka. Alebin B mailako taldea, berriz, bigarren geratu zen. Infantil mailan ere urrezko domina lortu zuten Ariznoa taldeko neskek.

Alebin A taldean, honako gimnastek parte hartu zuten: Aina-ra Amoros eta Ainhoa Martinez bergararrek eta Jurdana Pildain eta Usoa eta Lide Toledo antzuolarrek.

Alebin B mailako gimnastak, berriz, honakoak dira, antzuolarrak guztiak: Eukene Bastarrika, Jone Larrañaga, Ane Alberdi, Amaia Irastortza eta Onintza Legorburu.

Infantil B mailan, bestalde, honako gimnasta hauek dihardute: Oihana Agirre, Saioa Ugarte-buru, Ane De la Rosa eta Miren Ormazabal bergararrek eta Olaia Gastiain, Itsaso Garmendia eta Ikerne Rodriguez antzuolarrek.

PIRAGUISMOA

Gipuzkoako eslalom txapelketan zazpi domina irabazi dituzte Beti-Busti taldeko piraguistek

Aurreko asteburuan jokatu zuten Gipuzkoako eslalom txapelketa, Irunen. Zazpi domina irabazi zituzten Beti-Bustikoek. Junior mailan, Markel Agirre lehenengo sailkatu zen, eta Iraitz Artola hirugarren; kadeteen mailan, berriz, Leire Fernandez eta Markel Cestafe hirugarren geratu ziren; beteranoetan ere hirugarren postua lortu zuen Iñaki Gallastegik. Bestalde, taldeka ere bi domina irabazi zituen Beti-Bustik; taldeka, hirugarren tokian sailkatu zen, eta patruiletan, bigarren geratu zen.

IGERIKETA


Gipuzkoako eskola arteko txapelketan parte hartu dute Bergara Igeriketa Elkartekoek

Hilaren 22an eta 23an Legazpin jokatu zituzten Gipuzkoako eskola arteko igeriketa txapelketak. Nielka Ibagurennek, Mikel Labakak, Amaia Azpeitiak eta Irati Fernandezek Euskadiko Txapelketarako sailkatzea lortu zuten. Ainhoa Goienetxeak, Erik Gorostiagak eta Erik Iñarrak ere parte hartu zuten.

TXIRRINDULARITZA

Unai Arantzabal bergararrak Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi du Alegian

Martitzenean jokatu zuten, Alegian, Gervais memoriala, Gipuzkoako erlojupeko txapelketa, hain zuzen ere. Gazte mailan, Unai Arantzabal bergararrak jantzi zuen txapela. 23 segundo atera zizkion bigarren sailkatuari, AEG taldeko Sergio Lis txirrindulariari. Garikoitz Jauregi (Bruesa) izan zen hirugarrena, 56 segundora.



Maiatzean, Segurako Santa Kruz proba irabazi zuen Arantzabalek.

FOTOKIROLA



Gazte mailako eskubaloitako taldeak ezin izan zuten kopako finala irabazi

Aurreko asteko egunean jokatu zuten kopako finala gazte mailako eskubaloitako taldeak, Mutrikin. Zarautz izan zuten aurrez aurre, eta partidu gogorra jokatu ondoren, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten bergararrek; emaitza 31-34 izan zen. Josetxo Muniategiandikoetxea bergararren entrenatzaileak azaldu digunez, urduri samar atera ziren partidura bi taldeetako jokalariek. Oso partidu parekatua izan zen, eta amaierarako lau minutu geratzen zirenean, 30na zegoen markagailua. Hala, bigarren geratu diren arren, bergararrak oso pozik daude egin duten denboraldiarekin; izan ere, Josetxorenesanetan, finalera iristea ez da gutxi, eta gainera, kontuan hartu behar da Zarautz Euskal Ligan jokatzen duen taldea dela. /AINTZANE IRIZAR

MOTORRA

Aitor Zabaleta favorito bihar, Gorlako Igoeraren XIV. ekitaldian

Entrenamenduak 16:00etan hasiko dira, eta 62 partaide izango dira irteeran

EDU MENDIBIL

Gorlako Auto Igoera jokatu da bihar, zapatua. Bergara Racing taldeak antolatutako proban 62 partaide izango dira zapatuan. Aitor Zabaleta dugu garaipena eskuratzeko faborito nagusia.

Biharko probarako entrenamenduak 16:00etan hasiko dira eta ondoren bi txanda jokatu dira Gorlan: lehenbizikoa 17:30ean hasita eta bigarrena, berriz, 19:00ak aldera.


Esan bezala, garaipena eskuratzeko faborito nagusia Aitor Zabaleta (Lola Diamante) bergararra izango da. Lehengo urtean berak irabazi zuen Gorlan eta Euskal Mendiko Txapelketako aurtengo lehenbiziko proban ere nagusitu zen Zabaleta, Muñecas-en. Andres Vilariño (Reynard F-3000) ere etortzekoa da, baina azken urteotan uko egin dio parte hartzeari Gorlan, azken momentuan. Antolatzaileak nahiko haserre dira piloto donostia-

rrarekin. Ikusi behar zer gertatzen den bihar. Adolfo Posadak ere Reynard F-3000 autoarekin irtengo da Gorlan. Era berean, Ralt F-3 hiru formula izango dira, Jesus Santamariak, Rafael Bereinkuak eta Montxuk gidatutakoak, hain zuzen. Partaideen artean motoen motorra duten hamalau *speed car* izango dira.

BI BERGARAR IRTEERAN

Zabaletarekin batera, beste bergarar batek ere hartuko du parte biharko lasterketan. Markel Agirrek Renault-5 GT Turbo autoa gidatuko du. Bestalde, Deba-goieneko beste lau ordezkari izango dira: Aitor Ramirez (BMW 320 ST), David Ardions (Opel Kadett) eta Jose Angel Samaniego (Renault Clio Sport) oñatiarrak eta Emilio Huerta arrasatearra (Peugeot 306 GTI).

Biharkoa Gorlako Igoeraren XIV. ekitaldia izango da. Aurreko urteotan gertatu den moduan, Bergara Racing talde antolatzaileak espero du bihar jendetza handia biltzea Gorlan. Sarrerak 8



Aitor Zabaleta izan da garaile Gorlan azken urteotan.

eurotan jarriko dituzte salgai. Era berean, ibilbidean zehar antolatzaileen arauak betetzea eskatzen zaie ikusleei, inolako istri-

purik gerta ez dadin.

Proba amaitutakoan, sari banaketa Jam aretoan egingo dute, 21:00ak aldera.

IPINTZAKO TXAPELKETA

PARTIDUAK

EGUBAKOITZA, 4 (SENIOR MUTILAK)

19:00: Gore-Gorriones
20:00: Beti K.A.B.-Getokuak
21:00: The Parpol-Mongitxurak

ZAPATUA, 5 (SENIOR MUTILAK)

09:30: Ilari-La Juve
10:30: Ska-Libur-A Ze Flaxa-Guipuzcoana

ASTELEHENA, 7 (BETERANOAK)

19:30: Canalejas-Ezinleike
19:30: Mongatxurak-A Ze Flaxa
20:30: Guipuzcoana-Bildurbarek Opel-Lam
20:30: Arroteak-Txipiron

MARTITZENA, 8 (SENIOR MUTILAK)

19:00: Txokokuak-Ilari
20:00: Ska-Libur-Gore
21:00: Bildurbarek Opel-Lam-Ezdakiu

EGUAZTENA, 9 (SENIOR MUTILAK)

19:00: Gorriones-Lacor-Arroteak
20:00: La Juve-Angiola
21:00: Komando Torrekuu-Mongatxurak

EGUENA, 10 (BETERANOAK)

19:30: A Ze Flaxa-Guipuzcoana
19:30: Ezinleike-Mongatxurak
20:30: Bildurbarek-Opel-Lam-A Ze Flaxa
20:30: Arroteak-Canalejas

GREMIOEN GIDA zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

•Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

•Teilatu, fatxada,
sukalde eta
bainugelen
berrikuntza



Cantero Instalaciones

San Miguel 8/10
607 78 70 58

•Iturgintza
•Akreditazioa: gas
ontziratua
•Galdaren mantentzea

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

•Orotariko arotz lanak
•Sukaldeak
•PVC leihoak

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

•Orotariko pintaketa lanak
•K-21 agiria



UGARTE ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

•Orotariko arotz lanak
•Apainketa,
soruak,
leihoak,ateak





Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 22. alia

IEPA LAGUNOK!

Zer moduz ibilli zarete jaixetan? Ondo ezta? Ni be primeran ibilli naiz eta zuetako asko ikusi zaittuet barraketan. Baiña oin berriz be lanera... ia gaurko alia zuen gustokua dan!



URREZKO ARAUAK

- Maitanek jo egin nau.
- Neka-neka eginda nago.
- Maitanek jo egin dost.
- Etxo polbo nago.



HOROSKOPUA



capricornio

Barraketan diru dana gastau dozula? Diru piskat aurrezten jakin biharko ziñuke.



leo

Ez zaittez horrenbeste kexatu! Gogua jarritz gero nahi dozun lekura iritsi zeinke eta.



cancer

Betiko moduan inguruko danak alaitzen jarraitzen dozu. Segi horrela, alai eta umoretsu!!



aries

Ipurdikua hartu dozula? Gogoratu begixak aurrealdian bakarrik daukazula!



libra

Aste honetan bizkarreko miña edukiko dozu. Saiatu zaittez motxilan liburu gutxiago eruatzen.



piscis

Anaia baiño azkarragua zara. Orain be anaia ez zaittu harrapau.



virgo

A zelako hanka handiak daukazun! Zutik be lo hartzeko moduan zare.



geminis

Neka-neka eginda zarela! Normala, bihar baiño atsedean gutxiago hartzen dozu eta.



aquarius

Oindio ez dakizula zer egin oportetan? Azkar pentsatu, bestela zer egin pentsatzen pasauko jatzu oportak.



scorpio

Zuk bai aho zabala. Zure txutxumutxuak herriaren beste aldetik be entzuten dira.



sagittario

Laster oportak hartzen dittuzula eta, etxea konpontzen lagundu zeinke gurasuei.



tauro

Ez zaittez orain alpertu. Ikasturtia bukatzeko gutxi falta da eta.


IGARKIZUNAK

- Zer dala eta zer dala urdaillian kosk egi-tten dabena?
- Goizero dator hutsik egin gabe egun osuan berarekin gare, arratsaldero hutsik egin gabe agur esaten dosku hurrengo egunera arte. Zer da?
- Oroimen handiko animalixa usaimen handiko animalixa. Azala gogorra dauka eta munduko sudurrik handixena.



Gosia, Eguzkixa, Elefantia
ERANTZUNAK:

LIBURU GOMENDIUA



Durango, Durango asko gustatu jat abentura asko egitten zittuelako. Behien plaiara juan ziren eta surfian egin zebeñ oilluak eta gizonak. Hau izan da gehixen gustau jaten pasartia. Oso erraza da ulertzeko ipuin hau, letra oso handixak dauzka irakurtzeko, eta gaiñera ipuin motza da Durango-Durango. Marrazki asko dittu, orrialde bakoitzian marrazki bat. Gehixen gustatu jaten zatixa korapillua izan da. IRAKURRI!!!!

Izenburua: Durango, Durango
Egileak: Juan Kruz Igerabide eta Mikel Valverde



JONE EGUREN
8 URTE
ARANZADI IKASTOLA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Ze urtetan elkartu zen Oxirondo Bergararekin, eta Elgetakoa izateari utzi: 1348an, 1448an ala 1548an?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|--|
| <p>1.
Zenbat lagunek osatuko dute Euskararen Aholku Batzordea Bergaran?</p> <p>A/ Hogeita bi.
B/ Hamabi.
C/ Hamazazpi.</p> | <p>2.
Nor da egubakoitzean Bergaran izango den Hika Teatroa taldeko zuzendaria?</p> <p>A/ Agurtzane Intxaurreaga.
B/ Garbi Losada.
C/ Arantxa Iturbe.</p> | <p>3.
Zein bikotek irabazi du Bergara Hiria pilota txapelketa, nagusien mailan?</p> <p>A/ Erroizenea eta Argote.
B/ Huizi eta Gutierrez.
C/ Etxeberria eta Iza.</p> |
|---|--|--|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzailen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MAITE ARANZABALendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maitel! Galderen erantzunak: Bonofotoa: Ezkerrekoa, Aranerreka kalean eta Errotalde; eskumakoa, M. Sanchez Tocan eta Moiu Torrea / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Scottex komuneko papera

12 erroilu

2,90€

483 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ROMAN LARRANAGA (BUA)

BERGARAROSPETSUAK

Telesforo Monzon (2)

KOLDO PEREIRA

Erbesteko Eusko Jaurlaritzak Frantzia finkatu zen, eta han bi zeregin nagusitan jardun zuen Monzonek: presoek trukea lortzeko eta euskal errefuxiatuak kontzentrazio-esparruetatik ateratzeko ahaleginetan. Alemaniak Frantzia okupatu ondoren, Mexikora abiatu zen. 1946an Parisen finkatu zen Eusko Jaurlaritzako gainerako kideekin batera, eta gobernuan jarraitu zuen, EAJren itun-politikarekin bat ez zetorrela eta 1952an dimititu zuen arte. Hala eta guztiz ere, EAJn jarraitu zuen, eta Jose Antonio Agirrereren gorpua Monzonen Donibane Lohizuneko Mende Berri etxean beilatu zuten 1960ko abuztuan.

Bere alderditik eta bere belaunalditik aldendu ondoren, geroz eta gertuago zegoen 1950eko hamarkadaren amaieran sortutako belaunaldi berritik, Iparraldera ihesi joandako ETAkideengandik bereziki. 1969an Anai Artea sortu zuten Donibane Lohizunen, euskal erbesteratuen bigarren belaunaldiari babesa emateko. ETAREN inguruan sortzen hasi zen mugimenduaren alde egin zuen Monzonek.

ETAren inguruan sortzen hasi zen mugimendua bultzatu zuen 1960ko hamarkadan

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA.
Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXEA, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko ekainaren 4a / 204. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

'Zinea izarpean' programa abiaraziko du Udalak gaur, egubakoitza, gauean

AINZANE IRIZAR

Gaur, egubakoitza, izango dugu *Zinea izarpean* programako lehen filma ikusteko aukera, frontoi txikian; *El último samurai* filma, hain zuzen ere, eskainiko dute, 22:30ean. Gaur hasita, sei film eskainiko dituzte guztira, uztailearen 23ra arte.

Programa berri bat abiaraziko du Udalak aurtengo udarako; kalean filmak ikusteko aukera eskainiko digu, hain zuzen ere, herritarroi.

Ekimen honekin, Udaleko arduradunen helburua da gaur egun herrian dagoen eskaintza kulturala zabaltzea eta aisialdirako, herritarrei ekimen ezberdin bat eskaintzea.

Kontuan hartu behar dugu, gainera, gaur egun ez dagoela zinema aretorik herrian, eta urtean zehar dagoen eskaintza bakarra umeendako dela.

EMANALDIAK, FRONTOI TXIKIAN

Udal Pilotalekuaren kanpoko aldean, frontoi txikian, hain zuzen ere, izango dira film emanaldiak. Gaurtik aurrera, egubakoitzero eskainiko dute film bat, 22:30ean hasita.



El último samurai filma ikusteko aukera izango dugu gaur, egubakoitza, frontoi txikian.

Gaur bertan, *El último samurai* filma ikusteko aukera izango dugu. Tom Cruise aktorea dugu film horretako protagonista.

Datorren egubakoitzean, hilak 11, *Love actually* filma eskainiko digute; Hugh Grant, Emma Thompson, Liam Neeson eta Rot-

wan Atkinson aktoreek, besteak beste, parte hartzen dute film horretan.

Ekainaren 18an izango da hurrengo emanaldia: Isabel Coixet zuzendariaren *Mi vida sin mí* filmaz gozatzeko aukera izango dugu. Bi Goya sari irabazitakoa

dugu film hori. Hurrengo filma uztailearen 2an eskainiko dute, *Lágrimas del sol* izenekoa, hain zuzen ere. Uztailearen 9an *Días de fútbol* eskainiko dute; eta, azkeneko filma, Clint Eastwoodek zuzendutako *Mystic River* izango dugu, uztailearen 23an.

HERRITARREN HITZA / Mikel Larrea • Udaleko langilea

Nongoa naiz?

Antzuola Debagoiengan kokatuta dagoen herri bat da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko partaide da eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barne dago. Euskal Herriaren zati bat da eta, zoritxarrez, administratiboki, Espainiako estatuaren menpe dago; azken hau, Espainiako estatua, Europako Batasunaren kide da.

Beraz, ekainaren 13ko hauteskundeetan antzuolarrok ere bozkatzea deituta gaude.

Baina, benetan europarrak sentitzen al gara? Zer da europarra izatea?

Nire kasuan, oraindik europar sentimendua urrun sumatzen dut. Baina, argi daukadan zera da: ez naizela espainiarra sentitzen. Euskalduna naiz, baina ez nire herria Euskal Autonomia Erkidegoan dagoelako; euskalduna izango nintzateke nafarra edo zuberotarra izango banintz ere.

Aldi berean, ez dakit zer den gipuzkoarra izatea, ni Athletic



"Europarrak sentitzen gara benetan? Zer da europarra izatea?"

zalea naiz eta. Elgetan bizi naiz, baina, antzuolartzat daukat nire burua.

Hauxe da lurraldetasunarekin dudak nahasketa: lurraldetasunak abertzaletasun sentimendua sortarazten du, edo abertzaletasunak lurraldea mugatzen du?

Gaur egun, lurralde antolamenduaren gaian adituak direnek, gizartearen bilakaeran oinarrituta, herrien

eskualdekatzea bultzatzen dute. Egunen batean debagoiendarra sentituko al naiz?

Nire iritziz, pertsonak izanik, kolektibitatean bizitzera behartuta gaude, eta nahi ditugun erakundeak sortzeko eta maila berbera duten beste elkarte batzuekin harremanak izateko gai gara. Ez ditzatela horretarako mugak jarri lurraldetasun auziek edota legatu konstituzionalak.

Baina aurrez, oso argi izan behar dugu zein den gure benetako kokapena, eta nola nahi dugun komunitate baten partaide izan.

LABUR

Igogailuak jartzeko laguntzak eskatzeko aukera

Azkeneko urteotan bezala, Udalak diru laguntzak eman go dugu igogailuak jartzeko. Eskaerak aurkezteko epea dagoeneko zabalik dago; interesa dutenek udaletxeko bulegora jo beharko dute eskaerak egiteko; ekainaren 14a, astelehena, izango da horretarako azkeneko eguna.

Herriko gimnastak, Euskadiko txapelak

Aurreko asteburuan jokatu zuten txapelketa. Jurdana Pildainek eta Usoa eta Lide Toledok, txapelketa irabazi zuten, alebin A mailan; B mailan, bigarren egin zuen Antzuolako Infantiletan, azkenik, Olaia Gastiainek, Itsaso Garmendiak eta Ikerne Rodriguezek, irabazi egin zuten, taldeka.

Administrari laguntzaile izateko azterketak

Udaleko Hirigintza sailean administrari laguntzaile izateko postua lehiaketara ateratu zuten Udalak orain dela hilabete batzuk. Froga bakarrik geratzen zaie postu horretarako hautagaiei, aurrez aurreko elkarrizketa, hain zuzen ere. Hilaren 16an, eguaztena, izango dute froga hori.

Bake epaitegia Olarango bulego baten jarri dute

Oraingo estetika aurrera, Bake Epaitegia Olarango bulego baten egongo da, lehenergo solairuan, KZGunearen ondoan. Orain arte udaletxeko bulego bat erabili dute epaitegiekoek.

Ordutegia ez dute aldatuko: eguenero egongo da zabalik, goizez, 09:00etatik 14:00etara, hain justu.

ELKARRIZKETA

MARKEL LETE/FUTBOL JOKALARIA

"Pozik nago Realean jokatzeko aukera dudalako; oso esperientzia polita da"

A.I.

Eibar taldeko jokalaria da Markel, Altzetako mutikoa. Orain, Realak hartu du, hainbat partidu eta txapelketa jokatzeko. Andorran egon zen aurreko asteburuan, eta oraingoan, berriz, Madrilera doa.

Noiztik diharduzu Realarekin jokatzeko?

Aurreko astean bertan jokatu nuen lehendabiziko partidua. Realak, berez, ez dauka alebin mailako talderik, baina torneoren batzuetan parte hartu nahi duenean, Gipuzkoako hainbat mutil hartzen ditu taldea osatzeko. Horrelaxe hasi naiz neu ere.

Ze partidu jokatu dituzu Realarekin?

Lehendabizikoa Corellan jokatu genuen; aurreko asteburuan, berriz, Andorran egon gara torneo bat jokatzeko. Eta, oraingo asteburuan, berriz, Madrilera goaz, Canal Plus torneoa jokatzera.

Pozik egongo zara, ezta?

Bai, esperientzia ona izan da niretako, oso pozik nago Realean jokatzeko aukera izan dudalako. Eibar taldean hasi zara jokatzeko aurtengo denboraldian. Zela iritsi zitzaizun aukera hori?

Lagun baten aitak galdetu zigun ea nahi genuen Eibarrera joan proba batzuk egitera; animatu egin ginen, proba horiek egin genituen eta taldean hartu gintuzten.

Antzuolako besterik badabil Eibarren?

Bai, Ander Aranak, Jon Madariagak eta hirurok jokatzeko dugu Eibarko alebinen taldean.

Denboraldi ona egin duzue Eibarren?

Bai, pozik gaude, ligan hirugarren geratu ginen, eta bigarren fasean hamaikagarren postuan sailkatu gara.



A.I.

"Ander Aranak, Jon Madariagak eta hirurok jokatzeko dugu Eibarko alebinen taldean"

Zelako jokalaria zara? Zela ikusten duzu zeure burua?

Erdilaria naiz, eta esaten dute gogorra naizela, erresistentzia dudala. Hala izango da!

Zure jokalaria gustukoena?

Karpin eta Xabi Alonso gustatzen zaizkit gehien.

"Esaten dute jokalaria gogorra naizela eta erresistentzia handia dudala"

Zela ikusten duzu etorkizuna? Futbol jokalaria izan nahi duzu?

Bai; zaila izango da, baina ahalegindu beharko dut, behintzat. Jokalaria on asko dago, eta oso gutxi iristen dira profesional mailara.

KIROLA

Bihar, zapatua, hasiko dira bizikleta probak

AINZANE IRIZAR

Peña Aiastuik antolatuta, bihar, zapatua, ekingo diete aurtengo bizikleta probei. Guztira, lau proba antolatu dituzte datozen asteburueterako. Nahi duten herritar guztiak parte hartzeko aukera, baina, batez ere, neska-mutikoei hartu ohi dute parte.

Bihar, zapatua, Iralako igoerarekin hasiko dituzte aurtengo bizikleta probak. Hasiera baten eguerdirako iragarrita zegoen arren, azkenean, arratsaldeko lauretan hasiko dute lasterketa hori.

Hurrengo asteko zapatuan, berriz, hilak 12, ginkana proba egongo da, 12:00etan. Jaiak direla eta, Ondarren egingo dute ginkana jokoa.

Hurrengo asteburuan, hilaren 19an, Uzarragako igoera jokatuko dute, 12:00etan hasita. Bukatzeko, San Martzialerako igoera uztailearen 4an jokatuko dute.

Proba bakoitzean, irabazleen artean puntuak banatzen joango dira antolatzaileak, eta San Martzialen egingo dute sari banaketa, lasterketaren ondoren.

GIPUZKOA KLASIKOA, UZARRAGAN

Datorren urteko Gipuzkoa Klasikoa gazte mailako txirrindulari lasterketa Antzuolan jokatuko da. Uzarragako igoerak 30. urterrena beteko duela eta, Aiastui Txirrindulari Elkarteak eman dio lasterketa antolatzeko ardurara Gipuzkoako Txirrindulari Federazioak. EAEko eta Estatu-ko onenak izango ditugu datorren udaberrian Uzarragako igoeran.



'Gezi horiak' Antzuolara ekarri zituen

La flecha amarilla saioko hainbat lehiakide izan genituen zapatuan herrian. Begoñaren etxera etorri ziren bazkaltzera, eta bide batez, Antzuola ezagutzera. Errotaberri ondoan atera genien argazkia. Hortxe ikusten ditugu Izaskun, Xabi, Begoña, Patxi eta Alberto. Jacinto *Petra* eta Elena ere egon ziren, baina lehenago joan behar izan zuten. /A.I.

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko ekainaren 4a / 188. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Besteak beste, eskulanak egiteko aukera ere izango dute 2 eta 12 urte arteko umeek udan.

Aisialdi eta zaintza zerbitzuak ipiniko ditu Txirikil taldeak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Umeak oporretan daudenean haurrak zaindu ezin dituzten gurasoei irtenbide bat emateko zaintza eta aisialdi zerbitzua ipiniko du Goibeko elkartearen baitan sortutako Txirikil taldeak. Zerbitzu hau udan jarriko da abian.

Gero eta gehiago dira herrian, bereziki guraso biek lan egiten duten familietan, eskolaz kanpo orduetan edo oporretan umeak zeinekin laga ez dakitenak, euren lan orduak eta umeen egutegiak bat ez datozelako.

Datorren ikasturteak aurre-0 eta 2 urte arteko umeendako haur eskola egongo bada ere, 2 urtetik gorako umeak dituzten gurasoei erantzun bat eman beharra ikusi eta Goibeko Elkartearen baitan zerbitzu hau emango duen Txirikil taldea sortu dute.

HELBURUAK

Taldearen helburuak honakoak dira: familiei umeen hezkuntza eta aisialdi premiak asetzea; haur eta gazteen garapenean lagun-

tzea, etorkizuneko herritarrak baloreetan heztea, aisialdiaz gozaten ikastea, jolas eta jardueretan partehartzea eta harreman orekatuak bultzatzea eta ohitura osasuntsuak bereganatzea.

Ekainaren 21ean ipiniko du abian zerbitzu hau Txirikil taldeak Udalaren eta Guraso Elkartearen laguntzaz eta uztailaren 30era bitartean luzatuko da. Izena eman nahi dutenek ekainaren 7a eta 21a bitartean udaletxera jo beharko dute.

Ondoren, irailetik aurrera ere zaintza eta ludoteka zerbitzuak eskainiko ditu talde honek eta ordurako izen-ematea uztailean izango da zabalik.

Udan 2 eta 12 urte bitarteko haurrak goizean liburutegira joango dira eta bertan hainbat

ekintza egingo dituzte eguerdira bitartean, tartean baita gosaldur ere. Jantoki zerbitzua ere eskainiko zaie. Udan Espaloian emango diete jaten umei eta urtean zehar eskolako jantokian. Arratsaldean atsedenaldira egingo dute lehenengo eta gero irakurketa edo ipuin kontaketa. Jolasean jarduteko aukera ere edukiko dute.

Egunaren azken zatia ludotekaren emango dute; baina uda garaian, eguraldi ona eginez gero kanpoan egingo dituzte ekintzak: Elgetako inguruetara irteerak, jolasak plazan, eskolan, pilotalekuan... Barruan, berriz, eskulanak, puzzleak, ipuin kontaketa...

KUOTAK

Ume bakoitzak aukera ezberdinak izango ditu zerbitzuen ordainketei dagokienez. Ekaineko egun guztietan (zortzi guttura) joaten direnek 83 euro ordaindu beharko dituzte, baina izango da egun zehatz batzuetan bakarrik joateko aukera, eguneko bost euro ordainduta. Baita goizez edo arratsaldean joateko ere. Uztailean, berriz, egun guztietan joan nahi dutenek 100 euro ordainduko dituzte.

Herriko familiei umeen hezkuntza eta aisialdi premiak asetzen lagundu nahi die taldeak



Jaurnartzea egin zuten zazpi umek

Argazkiko zazpi umeek joan zen domekan egin zuten lehen jaurnartzea: June Dosunak, Maitena Mañarikuk, Jone Izagirik, Andoni Errastik, Mikel Zubiaurrek, Aitor Gorostizak eta Enrique Romerok, hain zuzen ere. Elgetako Andramari Jasokundearen elizan zen meza, eta apaizak esan digunez, meza entzun ez ezik umeek hainbat otoitz eginez eta gurasoek ere irakurriz parte hartu zuten elizkizunean. Abesbatzak ere hainbat kantur eskaini zituen./I.A.

BOLATOKI

Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak
Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak
Karta eta babarrun-jana enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

ETXEBIZITZA

Aldaketak arau subsidiarioetan babes ofizialeko etxeen gainean

I.A.
Torrealdean aurki hasiko dira babes ofizialeko etxeak egiten. Baina eztabaida piztu dutenak ez dira etxe horiek. Arau subsidiarioen arabera, herriko zenbait gunetan egongo diren etxeen artean batzuek babes ofizialekoak izan behar dute, eta horrek ika-mika sortu du.

Torrealdeako etxeak egiteko lanak aurrera doaz, eta Udaletik esan digute aurki hasiko direla babes ofizialekoak eraikitzen.


Etxebizitzaren zozketa nola egin aztertzen dihardute. Izan ere, zenbait baldintza Eusko Jaurlaritzak ipintzen ditu eta beste batzuk Udalak; herrian gutxieneko urte kopuru bat errolatuta egotea, esaterako.

Baldintza horien eta etxebizitzaren berri emanez interesatuekin batzarra egitekoak dira eta ondoren izena emateko epea zabalduko da.

BABES OFIZIALEKOAK ETA TASATUAK

Hala ere, Torrealdeako etxeak ez dira Udalean eztabaida sortu dutenak, beste batzuk baizik.

Elgetako Udalak duela bi urte hasierako onarpena eman zien. Idatzi horren arabera, 253 etxe-



Torrealdean opor aurretik hasiko dira babes ofizialeko etxeak eraikitzen.

bizitza eraiki daitezke Torrealdean, Uruburun, Iturburun eta Artekalen, eta horietatik 76 babes ofizialekoak izango direla dio, nahiz eta 7.000 biztanletik behar herra izanik, derrigorturik ez egon eskaintza hori egitera.

EAJ-EAK arau subsidiarioetako testuan aldaketa bat egitea aztertzen dihardu. Babes ofizialeko moduan izendatuta dauden etxeak babes ofizialeko zein tasatuak izatea, alegia.

Aralar alderdiaren ustez, aldaketak etorkizunean babes ofizialeko etxerik ez eraikitzea ekar dezake. Gaineratu dute aldaketa onartuz gero agerian geldituko dela arau subsidiarioak egitean etxebizitzaren gaineko hausnar-keta "okerra" izan zela.

Babes ofizialeko etxeak egiten oinarritu behar du, Aralarren ustez, etxebizitzaren gaineko udal politikak, nahiz eta jakin hori ekonomikoki esfortzu handia dela.

LABUR

Mendikuteri 23 urteko kartzela zigorra ezarri dio epaileak, erailketa eta lapurretatik

Epaileak dagoeneko jakinarazi du Aitor Mendikute —Elgetako tabako saltzailearen hiltzaileak— bete beharreko kartzela zigorra zenbatekoa izango den. Arrate Elkoro hiltzeagatik eta haren tabako dendan lapurreta egiteagatik guztira 23 urteko zigorra ezarri diote. Hilketagatik hogeitatu urteko kartzela zigorra, eta hiru urtekoa, berriz, lapurreta egiteagatik. Horrekin batera, kalte-ordaina eman beharko die Arrate Elkoroaren senitartekoei: 300.000 euro; senarrari 150.000 euro eta alaba bakoitzari 75.000 euro. Defentsako abokatuak, hala ere, epaia errekurrituko duela esan du.

Udalan urtebete pasa ostean balorazioa egingo du Aralarrek astelehenean

Urtebete pasa da azken udal hauteskundeetatik, eta haiek egin ostean, hiru zinegotzi lortu zituen Aralar alderdiak Elgetako Udalerako. Datorren astelehenean, hilaren 7an, balorazio hitzaldia izango da Aralarren eskutik. *Aralar urtebete Udalan. Ondiokan hola gabitz!!!!!!* izenburupean balorazio orokorra egingo dute lehenik, Gobernu akordioaren gaineko ondoren eta azkenik Elgeta Auzolanian plataformak Udalan parte hartzearen gainean Aralarrek egindako proposamena azalduko dute. Hitzaldia iluntzeko zortzietan izango da liburutegian, eta bertan, Aralarrek Udalan dituen hiru zinegotziek hartuko dute parte.

Informatika ikastaroak eskainiko ditu lasarteko MAE enpresak astean behin

Elgetako Udalak Maalan lokal bat laga dio MAE (Mecanográfica Audiovisual de Euskadi) informatika etxeari, hark informatika ikastaroak antola ditzan. Besteak beste, Windows, Word, Excel, Power Point, Internet Explorer eta Outlook Express programen gainekoak izango dira ikastarook. Ikastaroak 18:00etatik 21:00etara egingo dira astelehen edo asteartean eta taldeak 12 lagunekoa izango dira. Herritarrei jakinarazi nahi zaie MAE enpresakoak etxez etxe ibiliko direla egunotan ikastaroen berri emanez, nahi duenak izena eman dezan, eurek jakin nahi baitute jendeak zenbaterainoko interesa duen ikastaroetan parte hartzeko.

JAIK

Ekialde Urruna aurten mozorrotzeko gaia

I.A.
Azoka Nagusiko jaien prestaketa lanak aurrera doaz. Hainbatean elkartu dira Jai batzordekoak, eta zenbait ekitaldi adostuak dituzte jadanik.

Jaien aurretiko astean, ekainaren 27an hain zuzen ere, aspaldioko ohitura bat berreskuratzuz Umeen Euskal Jaia egingo da. Bergarako, Antzuolako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Sorluzeko dantza taldeetako haurrek egin-

go dute dantza egun horretan Elgetan. Guztira, 120 ume inguru izango dira.

Goizeko hamaiketan dantzarri guztiei harrera egin ostean, kalejira izango da eta gero plazan talde bakoitzak dantza bana egingo du, eta goizeko ekitaldiak amaitzeko buruhandiak egingo dira.

Ume guztiak bazkaltzera joango dira gero; horren harira, etxean umeak bazkaritarako hartzeko prest egongo diren familiak behar dituzte antolatzaileek. Prest

daudenek etxeetako postontzietan lagatuko papera bete eta udal-etxera joan beharko dute ekainaren 18a baino lehen.

Arratsaldean alardea izango da plazan. Neskek hainbat dantza egingo dituzte eta mutilek beste batzuk; azkenik, guztiek batera San Petit eta Txulalai dantzatuko dituzte.

MOZORROAK

Bestalde, erabaki dute jadanik jaietako lehen eguneko mozo-

rroetarako gaia: Ekialde Urruna izango da gai nagusia, eta elgetarrek Txina eta inguruko lurraldeetako jantziak eta ohiturak herrira ekarriko dituzte, egunean, uztailaren lehen.

Elgetak, beraz, ekialdeko uki-tua izango du, iaz Karibekoa izan zuen bezala.

Herritarrei mozorrotzeko dei egin diete antolatzaileek, eta bide batez baita egun horretarako gertatu duten afarian parte hartzeko ere.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

- Ekainak 5
15:00: La Kokotxa-Vicios Spias
16:00: Spias-Txapela Vicios
17:00: Aritniketan-Makanaki Txapela

EMAITZAK

- La Kokotxa - Makanaki 2-4
Aritniketan - Spias 9-2

Jesus Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19
**KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

**SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK**
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Podologia •
- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •
- Depilazioa laser bidez •

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

**PANA DE ROKUA
JATE TXEAL**

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL.: 943 76 82 73

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Lehenengo
jaunartzeko
argazkia

Zintzo-zintzo ageri zaigu neska-mutil talde hori lehenengo jaunartzearen egunean. Elizkizuna amaitu eta aldarean jarri ziren argazkia ateratzeko; guztiak geldi-geldi. 1984ko argazkia duzue hori, urte hartan egin baitzuten lehenengo jaunartzea, bederatzirterekin. Orain 29 bat urte izango dituzte, baina seguru ondo gogoratzen direla egun harekin.

Argazkia hartu zenetik hogeitazortzi urte pasa dira eta ordutik hona jaunartzeetan ere modak asko aldatu dira: orain zuriz eta soineko luzeekin joaten dira neskek; argazkian, ordea, soineko motzak dituzte guztiak.

Seguru batzuk zeintzuk diren segituan konturatu zaretela. Zalantzarik baduzue, hona hemen argazkiko izenak, goian, ezkerretik eskumara: Agurtzane Garcia, Aloña Mondragon, Erkaitz Artolazabal, Iban Saldi, Unai Idiakez, Oscar Velarde (beheraxeago), Julen Garitano, Joseba Garitano, Sergio, Jon Tena, Amaia Lascurain (beheraxeago), Dorleta Urrutxi, Ainhoa Ugarteburu, Iñigo Etxaniz (atzean) eta Rakel Lamas.

Behean, ezkerretik eskumara: Belen Rajado, Rafi Quintana, Kristina Pavo, Francisco Tena, Luis Herzog, Lide Gabilondo, Marijose Moreno, Alaitz Jauregi, Esther Coma, Noelia Coma, Noelia Matilla eta Nerea Telleria.

Argazkia: Ainhoa Ugarteburu



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA


BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12


GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara



MAHAINGURU BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Europar hauteskundeak

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

MAHAINGURUA
Europar hauteskundeak

Martitzenean, ekainaren 8an,
20:30ean eta 22:30ean



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobea den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 